




2019 - 2020

LEHIAKETAREN OINARRIAK

1. LIB.



01 OINARRIEN HELBURUA

Educontic eta Xenon etxeen laguntzarekin, Kristau Eskolak "#IzanAske#" lehiaketa antolatu du 2019-2020 ikasturtean Kristau Eskola sarean Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailan eta Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailan dauden ikasleei zuzenduta.

Oinarri hauen helburua da lehiaketa arautzea da; hain zuzen ere, lehiaketan parte hartzeko modua, deialdia eta sariak nola eman arautuko da.

02 LEHIAKETAREN HELBURUA ETA FORMA

Lehiaketaren helburua da gazteen artean teknologia berrien erabilera osasungarri eta arduratsua sustatzea, eta gazteek aktiboki parte har dezaten lortu nahi dugu.

Horretarako, ikasleek, dagokien hezkuntza etaparen arabera, produktu digital bat sortu eta bidali beharko dute; produktu horrekin, teknologia berrien gehiegizko erabileraren eta ziberjazarpenaren prebentzioa sustatu beharko da.

01 OINARRIEN
HELBURUA

02 LEHIAKETAREN
HELBURUA ETA
FORMA

03 BALDINTZAK

04 SARIEN
KATEGORIAK

05 IRABAZLEAK
IZENDATZEA

06 DATU
PERTSONALAK

07 JABETZA
INTELEKTUALAREN
ESKUBIDEAK

08 OINARRIAK ETA
BALDINTZAK
ESKURATZEA

10 ERANTZUKIZUNA

11 ERREKLAMAZIOAK

12 APLIKATU BEHARREKO
LEGEA



03 BALDINTZAK

2019-2020 ikasturtean Kristau Eskola sarean Lehen Hezkuntzako 5. edo 6. maila edo Bigarren Hezkuntzako 1. edo 2. maila egiten ari diren ikasle guztiek parte har dezakete lehiaketan.

Produktuak ikasleek egoki irizitako forma izan dezake, betiere euskarri digitalean egonez gero. Edukiak gaztelaniaz, euskaraz edo ingelesez aurkez daitezke. Euskara erabiltzea positiboki balioetsiko da, bigarren hizkuntza moduan bada ere.

Era berean, edukia gaztelaniaz, euskaraz edo ingelesez aurkez daiteke. Euskara erabiltzea positiboki balioetsiko da, nahiz eta bigarren hizkuntza moduan erabil.

Parte hartzen duten ikastetxeek 2020ko apirilaren 3ko 23:59ak arte bidali ahal izango dituzte lanak, eta lan bakoitza gutxienez 4 eta gehienez 6 lagunek sinatu ahal izango dute. Lehiaketaren antolatzaileek epea aldatzeko eskubidea izango dute, beharrezko iritziz gero.

Parte hartzen duen ikastetxe bakoitzean, gela bakoitzeko lan bat aurkeztu ahal izango da.

Parte-hartzaile bakoitzak irudia uzteari buruzko baimena sinatuta izan beharko du, egiten dituzten bideoetan edo gaztea identifikatu daitekeen beste edozein euskarri grafikotan parte hartu ahal izateko. **(1go ERANSKINA)**

Lanak aurkezteko, proiektu finalisten azken produktuak Kristau Eskolak lehiaketarako prestatu duen eta aurrerago zehaztuko den espazioan igo beharko dira.

Partaidetza ez da aintzat hartuko harik eta lehiaketaren antolatzaileek oinarri hauetan eskatzen diren baldintza guztiak betetzen direla egiaztatzen duten arte.

Sor litezkeen zalantza edo galderak honako helbide elektronikoa honetara mezua bidalita argitu behar dira:

izanaske@kristaueskola.eus


Lehiaketaren antolatzaileek garatzeko proposatutako gaiekin lotutako edukia duten lanak soilik aurkeztu ahal izango dira lehiaketan.

Nolanahi ere, saritutako edukiak originala eta egileak egindakoa izan behar du, eta ezin izango ditu urratu hirugarrenen jabetza intelektualaren eskubideak, inondik inora ere. Parte hartzaileek adierazi eta bermatu beharko dute lehiaketan parte hartzeko erabili duten lanak ez duela jabetza intelektualaren ezein eskubide urratzen.

Oinarri hauetan xedatutakoa betetzen ez duen lanik ez da onartuko, eta debekatuta dago, besteak beste, honelako edukiak dituzten lanak aurkeztea: indarkeriarekin, xenofobiarekin edo sexismoarekin lotutakoa, ohorerako eta norberaren irudirako eskubidea urratzen dutenak, legez kontrako jarduera eta zerbitzuak sustatzen edo iragartzen dituztenak, hirugarrenen eskubide edo ondasunak kaltetzen dituztenak, edo modu batera nahiz bestera Espainiako legeak urratzen dituztenak. Horrelako lanak bazter utziko ditugu, berehala.

Lehiaketaren antolatzaileek lanak bazter uzteko eskubidea izango dute, baldin eta lehiaketaren helburuaren arabera desagokitzat jotzen badituzte, beren irizpideei jarraikiz.

Parte-hartze bat desagokia baldin bada, edo aipatutako baldintzak ez baditu betetzen, edo okerrak diren, zehatzak ez diren, osatuta ez dauden edo gezurrezkoak diren datuetan oinarritzen bada, baliogabetu egingo da eta ez da kontuan izango lehiaketan parte hartzeko.



04 SARIEN KATEGORIAK

Lehiaketa bi modalitatetan banatuta dago:

A- Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. maila

- Talde irabazlearentzako saria: **ROBOTA**
- Gela irabazlearentzako saria: **ESPERIENTZIA**

B- Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. maila

- Talde irabazlearentzako saria: **E-BOOKa**
- Gela irabazlearentzako saria: **ESPERIENTZIA**



05 IRABAZLEAK IZENDATZEA

Kategoria bakoitzeko talde irabazleak honela hautatuko dira:

A- Aurrehautaketa

Parte hartu duen gela bakoitzeko talde bat hautatuko da azken faserako. Ikastetxeko langileek hautatuko dute taldea, parte hartu duen ikastetxe horretako langileek erabakitako prozeduraren bitartez.

B- Azken fasea

Lehen esan dugunez, parte hartu duen gela bakoitzetik talde bat iritsiko da azken fasera. Azken fasera iristen direnen artean, bi epaimahaik hartuko dute erabakia: **epaimahai herrikoi batek eta epaimahai profesional batek.**

Epaimahai herrikoiaren **bozketa** Kristau Eskolako webgunean egongo den formulario baten bitartez egingo da; formulario horretan, proiektu finalista guztiak ikusi ahal izango dira, eta gustukoena alde bozkatuko da. Bozkatzeko posta elektronikoa beharko da behin baino gehiagotan ez egiteko helburuarekin. Bozkaketa prest dagoenean zirkular bitartez abixatuko zaie ikastetxei.

Epaimahai profesionala: guztira 5 epailek osatuko dute. Lehiaketaren antolatzaileek erabakiko dute epaileak zein izango diren. Antolatzaileek epaimahaiko kideak aldatzeko eskubidea ere izango dute, eta aldaketa horien berri eman beharko dute Kristau Eskolaren webgunean.

Epamahir profesionalak **hautaketa irizpide** hauei jarraituko die:

a- Produktu digitala lehiaketaren gaiarekin bat datorren.



b- Eduki positiboa, gazteek lehiaketaren helburuarekiko konpromiso aktiboa hartzen dutela adierazten duena.



c- Edukiaren kalitatea.



d- Sortutako produktuaren kalitate teknikoa.



e- Estetika eta originaltasuna.



2020. urteko maiatzaren hasierako 10 egunetan iragarriko dute antolatzaileek **talde finalistak zein diren**, posta elektronikoaren bitartez eta lehiaketarako Kristau Eskolako webgunean sortutako atalean.


Talde irabazleak hautatzeko **prozedurari** dagokionez, epaimahai profesionalak epaimahai herrikoiak egindako hautua aintzat hartuko du azken erabakia hartzeko garaian.

Talde bakoitzeko **lan irabazleak zein diren** 2020ko maiatzaren 15ean iragarriko da, Kristau Eskolaren GuGeu jardunaldian. Jardunaldiari buruzko informazioa posta elektroniko bidez helaraziko da ikastetxeetara. Parte-hartzaile guztiek nahitaez bertaratu beharko dute, baina talde finalistek sariak banatuko diren jardunaldian parte hartzeko konpromisoa hartu behar dute. Lehiaketaren antolatzaileek ekitaldi horren eguna aldatzeko eskubidea izango dute.

Sekzio bakoitzeko irabazleek **bina sari** irabaziko dituzte. Alde batetik, talde irabazleak sari teknologiko bat jasoko du eta, bestetik, irabazleen gela osoak esperientzia bat irabaziko du.

Saria onartuz gero, lehiaketaren antolatzaileek antola ditzaketen ekitaldietan parte hartzeko konpromisoa hartzen dute irabazleek, betiere "#IzanAske, GuGeu" proiektuaren barruan eta iragarpen ofiziala egiten denetik kontatzen hasi eta urtebeteko epean.

Talde irabazleari saria ez emateko eskubidea izango dute lehiaketaren antolatzaileek, baldin eta egiaztatuko balitz arauak urratu dituztela edo ez direla lehiaketaren oinarriak bete.





06 DATU PERTSONALAK

Lehiaketaren premiak direla eta, ikasleek datu pertsonalak eman behar dituzte lehiaketan izena emateko prozesuan, eta lehiaketaren antolatzaileek datu horiek erregistratu, gorde eta, hala badagokio, partekatu ahal izango dituztela aintzat hartu eta onartu behar dute parte hartu duten ikasleek. Horretaz gain, antolatzaileek edo horretarako izendatutako hirugarren batek datu horiek erregistratu ahal izango dituela aintzat hartzen eta onartzen dute, betiere lehiaketaren eta lehiaketa biltzen duen ekimenaren barruan.

Antolatzaileek ez dute talde parte-hartzaileen informazio pertsonalik partekatuko lehiaketatik kanpoko erakundeekin.

Antolatzaileek bildutako datu pertsonal guztiak eskatzeko, egiaztatzeko, zuzentzeko edo ezabatzeko eskubidea izango dute parte-hartzaileek; horretarako, eskaera egin beharko dute honako helbide elektroniko honetara mezu bat bidalita: **izanaske@kristaueskola.eus**

Ikasleek hezitzaile baten bitartez parte hartzen dutenez lehiaketan, hezitzaile horrek parte-hartzaileen datu pertsonalak jakinarazteko baimena baduela egiaztatu eta bermatu beharko du.



07 JABETZA INTELEKTUALAREN ESKUBIDEAK

Oinarri hauetan lehendik zehaztutakoari jarraikiz, parte-hartzaileek baimena ematen diete lehiaketaren antolatzaileei aurkeztutako proiektuei buruzko informazioa erreproduzitzeko, irudikatzen eta jendaurrean jakinarazteko.

Taldeek ikastetxeen bitartez parte hartzen dutenez, ikastetxeak esanbidez onartu behar du elementu horiek toki hauetan erreproduzitu eta/edo irudikatu ahal izatea:

- Esleitutako webgunean (www.kristaueskola.eus) eta lehiaketaren antolatzaileen webgunean.
- "TOPAGUNEA" deituriko webgunean.
- Irabazleak iragartzeko ekitaldian antolatzaileek egiten duten prentsa komunikatuan.
- Twitter eta Instagram kontuetan.
- Lehiaketaren antolatzailearen Youtubeko webgunean.

Baimen hori doan ematen da, lehiaketan parte hartu den egunetik hasi eta jabetza intelektualaren eskubideak babesteko legezko epe osoan.

Parte hartu duten ikastetxeek lagapen hori onartzeko eta antolatzaileari aipatutako elementuen erabilera baketsua bermatzeko aginpibidea badutela egiaztatu behar dute.

08 OINARRIAK ETA BALDINTZAK ESKURATZEA

Lehiaketari buruzko informazio guztia hemen kontsulta daiteke:
www.kristaueskola.eus



09 LEHIAKETAREN OINARRIAK

Oinarri hauetako artikulua bat edo gehiago baliorik gabe geratu edo indargabetuko balira legea aldatu delako edo epaile baten erabakia dela eta, horrek ez du eraginik izango gainerako artikuluen baliozkotasunaren eta aplikazioaren gainean.

10 ERANTZUKIZUNA

Lehiaketan parte hartzeak jarrera zintzoa izatea dakar; horrek esan nahi du xedatutako arauak eta gainerako parte-hartzaileen eskubideak erabat errespetatu behar direla.

Parte hartzen duten taldeek Oinarri hauetan deskribatutako arauak betetzen ez dituen parte-hartze prozedura oro praktikan ez jartzeko edo ez aplikatzeko konpromisoa hartzen dute.

Lehiaketaren antolatzaileek Oinarriak erabat betetzen ez dituen pertsona ororen parte-hartzea ezabatzeko, baliogabetzat jotzeko edo indargabetzeko eskubidea izango dute.

Era berean, lehiaketaren martxa ona eragozten duen pertsona ororen parte-hartzea ukatzeko eskubidea, eta iruzur egiten duen edo martxa onari enbarazu egiten dion edo hori egiten saiatzen den edozein pertsona auzitara eramateko eskubidea ere izango dituzte.

Iruzurra eginez gero, taldea deskalifikatu egingo da, berehala. Talde irabazleak iruzur egin badu edo egiten saiatu bada, edo manipulazio horiek mesede egin badiote talde irabazleari, talde hori lehiaketatik kanporatu egingo da eta saririk gabe geratuko da.

Antolatzaileek egoki iritzitako egiaztapen oro egiteko ahalmena izango dute, beren iritziaren arabera, betiere artikulua hau eta Oinarri hauek guztiak errespetatzen direla ziurtatzeko eta, bereziki, abusuren bat edo iruzur saiakeraren bat egin duen parte-hartzaile bat lehiaketatik kanporatzeko.

Parte hartzen duen taldeak Oinarriak behar bezala betetzen dituela egiaztatzeko eska dakioketen elementu oro aurkeztea onartzen du.

Antolatzaileek, edozein unetan eta justifikatu behar izan gabe, lehiaketa eten, luzatu, laburtu, aldatu eta/edo baliogabetu ahal izango dute, eta ezin izango zaie ezein erantzukizun eskatu.

11 ERREKLAMAZIOAK

Oinarriak betetzearekin edo interpretatzearekin lotutako edozein gai lehiaketaren antolatzaileei helarazi behar zaie, idatzita, honako helbide honetara: izanaske@kristaueskola.eus



12 APLIKATU BEHARREKO LEGEA

Oinarri hauek Espainiako legeei atxikitzen zaizkie. Lehiaketa dela eta auzigairen bat sortuz gero, Euskal Autonomia Erkidegoko jurisdikzioari dagozkion auzitegietan ebatziko da.



1go ERANSKINA

Irudi eskubideak lagatzeko kontratua

_____ jauna/andrea, adin nagusikoa (helbidea: _____),
_____, NAN zenbakia _____),
_____ adingabearen (NAN zenbakia: _____)
_____ (aita, ama edo legezko tutorea) da.

Hemendik aurrera, lagatzailea;

1982ko maiatzaren 5ko Lege Organikoaren 2.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, esanbidez eta modu ezeztazinean, baimena ematen dio KRISTAU ESKOLARI (helbidea: Santesteban Musikaria kalea 3, 2-A, 20011 Donostia; IFK: G20915690) –hemendik aurrera, lagapen-hartzailea–: lagapen-hartzaile modura baliatu ahal izan ditzan bere irudia hartzeko, erreproduzitzeko eta zabaltzeko eskubideak, betiere honako erabilera edo helburu hauetarako: **#IzanAske LEHIAKETA, GuGeu PROIEKTUA.**

Baimen honen bitartez, lagatzaileak baimena ematen dio lagapen-hartzaileari irudi horiek edo irudi horien zati bat erreproduzitzeko eta zabaltzeko, gaur egun ezagunak diren baliabide teknikoak eta euskarriak erabilita, bereziki, idatzitako, ikus-entzunezko eta elektronikako euskarriak, internet sartuta, eta baita etorkizunean gara daitezkeenak ere; salbuespen eta muga bakarra izango du baimenak, hain zuzen ere, Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako, eta norberaren irudirako eskubidearen babes zibilar buruzko Lege Organikoan (maiatzaren 5eko 1/1982) aurreikusitakoaren arabera, ohorerako eskubidea urra dezaketen erabilerak.

Idazki honen bitartez, sinatzaileak adierazi du goian emandako baimenak ez diola kalterik egiten bere ospeari, izen onari, duintasunari eta ohoreari eta, beraz, ez dakarrela inolako mutur-sartzerik bere intimitaterako eskubidearen eremuan, eta esanbidez uko egiten diola edozein motatako ordain edo kalte-ordainik jasotzeari edo eskubide moralen bestelako mekanismo ordaingarriren bati.

Baimen honek ez du geografia eremu jakinik; beraz, mundu osoan baliatu ahal izango da, inolako muga geografikorik gabe.

Irudi eskubideen lagapenak eta lagatzailearen baimenak 5 urteko epea izango dute, irudi horiek komunikatzen direnetik kontatzen hasita.

Bi aldeek adostuta, lagapen hau doan egiten da. Lagatzaileak ez du kontraprestaziorik jasoko bere irudi eskubideak lagapen-hartzaileari lagatzearen truke. Era berean, lagatzaileak ezin izango du kontraprestaziorik eskatu etorkizunean, lagapen-hartzaileak irudi horiek erabiltzen baditu, betiere kontratu honetan aurreikusitakoaren barruan.

_____n, 20__ko _____ean

Sinadura: